



Historia oparoko biotopoa

GAZTELUGATXEKO BIDEZIDORRA

Susana Soto

Matxitxako lurmuturraren eta Bakio herriaren arteko itsasertzean lurra eta itsasoa elkarren aurka gudukatzen dira etengabe. Itsaso indartsuak haitzuloak eta arkuak eratzen ditu, hareharria higatuz; lurrak, berriz, arrezifeetako kareharri gogorrez osatutako uhartetxoak agerrarazten ditu itsasoaren azalean. Higadura mota horrek edertasun paregabeko paisaia sortzen du. Gainera, inguruak interes historiko handia duenez, 1998. urteaz geroztik Gaztelugatxe biotopo babestua da. Biotopoaren bihotzean Aketx uhartetxoa eta Gaztelugatxe "penintsula" ospetsua daude.

Karobi deritzon begiratokian hasiko dugu ibilbidea, Bakioko irteeran. Han, Bermeorako errepidea utzi, eta itsasertzaren paretik doan bide asfaltatu estu bat hartuko dugu. Hasieran, Aitz-Gane urbanizazioaren erditik igaroko gara, eta gero ur-araztegiaren albotik. Aldats gogor eta labur batek beste talaia batetik hurbil utziko gaitu. Tontorrean erpin geodesiko bat eta harrizko gurutze txiki bat dauzka. Talaia horretatik Bakioren, hondartzaren eta Jata mendia ikuspegi ederrak daude.

Biotopoaren gaineko begiratokia

Gure bidea beherantz doa. Apur bat aurrerago, kartel batek Gaztelugatxe Biotopo Babestuaren sarrera seinalatzen du. Berehala, galdutako altitudea berreskuratuko dugu. Gorantz beti, zenbait baserri dituen itsaslabarraren albotik joango gara. Hainbat minutuz igo ondoren, bideak eskuinetara jotzen du bat-batean. Une batez asfaltoa utzi eta, kontu handiz, beherantz begira dezakegu, Gaztelugatxeren ikuspegi interesgarrietako batez gozatzeko.

Gaztelugatxe

Errepidean gora, San Pelaio auzora iritsiko gara. Ezkerraldean, Eneperi baserriaren ondoan, Gaztelugatxe zubiraino jaisten den bidezidorra hartuko dugu. Handik abiatuta, eskailera luze batek itsasoaren mailaren gainetik 74 metrora dagoen tontortxora eramango gaitu. Hortxe dago Gaztelugatxe Doniene baseliza. Ikuspegi panoramiko zoragarriak daude: Matxitxako lurmuturra, Burgoa mendia eta Aketx haitza (Bermeon); Jata mendia (Bakio eta Armintza herrien artean); eta Ermua mendia eta Billao uhartea (Gorliz).

Elezaharraren arabera, deabrua Bermeoko portuan lehorreratu zen, eta San Joan Bataiatzaileak haraino jarraitu zion. Hiru pauso luze eginik, Gaztelugatxe uhartetxoaren tontorrean harrapatu zuen. Oraindik ere, utzi zituen hiru oinatzak aurki ditzakegu: lehena Bermeoko San Joan arkuan, Araneoko Itsasalde baserriaren ondoan; bigarrena Burgoa mendia tontorrean; eta hiru-


garrena basilizara sartzeko eskailerako azken mailan.

Baseliza X. mendekoa da eta, dirudienez, tenplarioek eraiki zuten. Hala zelaigunean nola basilizaren barrualdean Erdi Aroko hilobiak aurkitu dira, IX. mendetik XII. mendera bitartekoak. Basilizaren historiako gertakari ugarien artean, nabarmentzekoa da 1593an Francis Drake itsaslapur ospetsuak egindako eraso eta lapurreta.

Inguruko arrantzale guztiek debozio handia diote basilizari. Horregatik, barrualdean hiru itsasontzi daude sabaitik esekita, itsasontzi baten brankak edertzen du aldea, eta ontziei nahiz naufragioei buruzko margolanak daude hormetan.

San Pelaio basiliza

Bakiora itzultzeko, lehenengo bidexkatik igoko gara, Eneperi baserriraino. Han, ezkerretara jo, eta asphaltotik joango gara BI-3101 errepidearekiko bidegurutzeraino. Errepidea gurutzatu, eta pista asphaltatu batetik jarraituko dugu, San Pelaio basiliza erromanikoraino. XII. mendearen amaieran edo XIII.aren hasieran eraiki zuten, eta Bizkaiko lurraldean geratzen diren kristau eraikuntzarik zaharrenetako bat da. Dekorazio soila du, eta Mendebaldeko portada da interesgarria: arkitektura-egitura onekoa da, erdi-puntuak lau arkibolta ditu, eta hauts-babesak bolaz apainduta daude. Baseliza bisitatu ondoren, Eneperira itzuli eta Bakioraino joango gara, lehenengo bide beretik.



OHARRAK

ABIAPUNTUA: Karobi begiratokia, Bakio-Bermeo errepidean, Bakioko irteeran.

ZAILTASUNA: Txikia.

URTE-SASOIA: Urteko sasoi guztietan joan daiteke, itsasoan ekaizik ez badago.

GUTXI GORABEHERAKO DENBORA: 2 h.

BIOTOPO PROTEGIDO DE SAN JUAN DE GAZTELUGATXE

Este Biotipo Protegido, declarado el 15 de septiembre de 1998, se enclava en un tramo del litoral en el que abundan las cuevas, islotes y arcos, dando al lugar un paisaje de especial belleza y grandiosidad.

LA FLORA: La vegetación está compuesta por especies adaptadas a ambientes salinos y fuertes vientos, entre las que destacan la *Armeria euskadiensis* (endemismo vasco) y el acebuche (reliquia de épocas más cálidas). Por encima de ellos se encuentran ya los brezos, argomas, encinas y viñedos de los caseríos más próximos.

LA FAUNA: La fauna de la zona se compone especialmente de actinias, erizos, holoturias, nécoras, pulpos, centollos, fanecas, lubinas, chicharros y grandes predadores como la morena o el congrio, y sobre todo el exquisito percebe. Las aves marinas son muy abundantes. La existencia de espacios amplios, como la isla de Aketx, a la que sólo se puede acceder por mar, propicia que puedan reproducirse con tranquilidad. Entre las aves que crían aquí destaca, por su rareza y pequeño tamaño, el Paíño común. Abundan, además, las Gaviotas patiamarilla, los Cormoranes moñudos y las Palomas bravías.

EL FONDO MARINO: La alta calidad de las aguas, transparentes, bien oxigenadas y sin presencia de contaminantes industriales o urbanos, favorece la biodiversidad. Sobre los fondos marinos, mayoritariamente rocosos, se asientan algas de gran porte como las Laminarias o Saccorhizas, las cuales constituyen un buen lugar para el alevinaje de peces. A menor profundidad y entre algas rojas (*Gelidium*) y calcáreas (*Lythophyllum* y *Corallina*) encuentran refugio babosas, carraspios y julias además de muchos invertebrados.